

## Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1923'ko Lotazila' ren 20'an.

Egun ontan izan diran batzarëtara euskaltzain abek datoz: Azkue maipuru, Urkijo, Kanpion, Lakonbe, Landerëtxe, Intza, Altube, Eguskitza, \*ta Intzagarai. Urgazletatik Ormaetxea jauna.

1. Etxegarai Karmelo euskaltzain aukeratuaren ezkutitz bat irakuri da ta eskutitz oretaz eskerak ematen dizkio Euskaltzaindiaren bere barengo laguntzat aukeratu duelako. Sarerako itzaldiaren gaya aipatzen du ta bere gogoz auxe izango litzake: *Mogel anaiak euskeraren alde egin dituen lanak*. Sarera jaya izan liteke naiz Azpeiti naiz Bergara'n. Euskaltzain batzuek Bergara daukate begiz joa, batez ere, Eleizalde gure lagun maite zana angoxea zalako ta egokien dirudielako, ildakoen eria aukeratzea jai ontarako, Broussain jaunaren aldian egin zan bezela. Ez da ezer erabaki, idatziko zaio Etxegarai jaunari erabili dan iritxia ta geroago erabakiko da.

2. Euskaltzaindiak oraindik ere eman nai lioke Eleizalde euskaltzain argi zanari bere maitetasunaren agealdia. Ontan, euskaltzain guziak gogo bero batez dabilz. Maitetasun-agealditzat auxe erabaki da.

Sari-bat irasten da, *Eleizalde* izentzat eramango duena. Sari-batzaldira gaurtandik deitzen dira idazle euskaldunak. Sari au *500 pesetako* izango da ta auxe bere gaya: Euskaleriko lutelesti edo geografia. 100 ori inguru izan bear ditu lutelesti orek. Lan ortarako urte beteko epea emango zaie idazleai ta euskaltzain diranak ezin sartu litezke batzaraldi ortan; urgazleak bai.

3. Aita Intzak irakurri du bere aita Nagusiak berari igortzen dion idazki bat, esanik Euskaltzaindiak gora jo bear luketa oraingo Agintariakgana, euskeraren alde, eliz, ikastetxe ta erietan egin bear litzakenen eskabidez. Urkijo jaunak esan du: gai ontan ta asmo beretan oraintxe dabilela Eusko-lkaskuntza ta obe litzakela Eusko-lkaskuntzaz batu eskabide ori indar aundiagoz egiteko. Baietz deritzate euskaltzañak ta orixe erabaki da.

4. Aita Intza berak aitortzen du: Bidaso-aruzko *Euskal-Biltzañak* lan bereziak darabilzkiela euskerraren alde ta orégatik zorion beroak azaldu bear zaizkiola. Baietz dio Euskaltzaindiak eta zorionak igoriko dizkio. Garai auxe aukeratzen du Euskaltzaindiak bereziz adierazteko: Euskeraren alde dabiltzan guziai, zerbaiten sorospidea, berak al duenez, emango zaiela.

5. Lakoizketaren jaiotetxeán oroitañi bat jañi nai litzake. Orétarako Euskaltzaindiak dirubide bat banatu nai luke, berak *50 pesetaz* asiera emanik.

6. Kanpion jaunak bere lan eder bat irakurri du ta bigaramonean jañaitzeko gelditu da. Lanaren gaya auxe da: *El vascuence y el antiguo egipcio*.

Ta beste gai batzuek uréngo egunerako laga-ta otoiñtez amaitu batzañaldia.

---

**Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1923'ko Lotazi-  
Ia'ren 21'an.**

Batzar ontara datozen euskaltzañak abetxek dira: Azkue, Kanpion, Landéretxe, Lakonbe, Urkijo, Intza, Altube, Eguskitza ta Intzagarai. Urgazletatik batez.